

ATAUN Turismoa




1. IBILBIDE MITOLOGIKOA

| | |
|---------------|-------------------|
| ALTUERA MIN.: | 166 m. |
| ALTUERA MAX.: | 331 m. |
| DESNIBELA: | ▼ 166 m. ▲ 211 m. |
| DISTANTZIA: | 7,69 km. |
| DENBORA: | 2 ordu 30 min. |
| ZAILTASUNA: | errezu |



1. BARANDIARAN

➤➤ SAN MARTINGO PLAZA ~ SAN GREGORIOKO PLAZA ~ GAZTIÑERREKO UR~BILTEGIA ~ SAN MARTINGO PLAZA



| | | | | |
|----------------|--------------|----------|-------------------|--------------------|
| Aparkalekua | Plaza | Iturria | Karobizuloa | Amaiera |
| Hasiera puntua | Bidegurutzea | Zubia | Hesia/langa | Barandiaran museoa |
| Jolastokia | Eliza | Biltegia | Puntu mitologikoa | |



TOPOGIDA

P. **Aparkalekua.** San Martingo plazan utziko dugu autoa.

1. **Hasiera-puntua.** Ibilbidea San Martingo plazan bertan hasiko dugu zubia igaroz eta otso arrastoak jarraituko ditugu jolastokia eskuin aldean utziz. Berehala, errepidea gurutzatu eta errekararen ertz berean jarraituz zuhaitzen itzalean doan bidea jarraituko dugu. ◀) ENTZUN: 1. Zaindegiko atsoaren esaunda.

2. **Astigarragako atsedenekua.** Gerizpean atsedean hartzeko leku aparta, bere eserleku, mahai, iturri eta guzti. Haurren jolasetarako jolastoki bat ere bada. Bertan atsedean hartu ondoren herri-bidean aurrera jarraituko dugu. ◀) ENTZUN: 2. Lamien kondaira.

3. **Astigarragako zubia.** Hau ezkerrean dugula aurrera ekingo diogu bideari, berehala berriro bide estu baina seinalezatutuan sartuz.

4. **Olaluzeagako karobi-zuloa.** Olaluzeaga etxetik eskuinean bidexkan igoz bertaratuko gara karobi-zulora, hau ikusi ondoren bidea jarraitu, errepidea gurutzatu eta berehala etxe barrenetik ezkerrean eginez aurrera ekiteko. Berehala gara berriro bidexkan.

5. **Aldakotxo.** Joxemiel Barandiaranen amaren baserria ezkerrean utzita egiten du aurrera bideak. ◀) ENTZUN: 3. Aldakotxo baserria.

6. **Peruenezar.** Joxemielen jaiotetxea ikusi ondoren ezkerrean utzi eta bidea jarraituko dugu. ◀) ENTZUN: 4. Peruenezar baserria.

7. **Sara.** Ipar Euskal Herriko etheen estetika jarraituz eginiko etxea, Joxemiel Barandiaranen azken urteetako bizitokia ezkerrean ikusi eta aurrera egingo dugu etxe artean igaroz. ◀) ENTZUN: 5. Sara etxea.

8. **Zelaiabar.** Errekaren beste aldean ezkerrean gelditzen da XVI. mendeko dorretxe hau. Bidean aurrera eginez egun museo bilakatu den multzo hidraulikoa ikus dezakegu, Errotatxo delarik lehen agertuko zaiguna.

9. **Larruntza.** Museoa ikusi ondoren, eta nahi duenak parean duen Olaldeko atsedeneku txikian deskantsu egin ondoren aurrera jarraituko dugu errepidean ezkerrean eginez eta zubira hurbilduz. ◀) ENTZUN: 6. JMB mitologia museoa.

10. **Lauztierrekako zubia.** Zubi honetan ezkerrean egin behar da San Gregorioko plazara zuzenduz. ◀) ENTZUN: 7. Tartala.

11. **San Gregorioko plaza.** Oteizaren Centauro-a, iturria, jolastokia eta Zelai pilotalekua kokatzen diren plaza ingurunea eskuinean utziz joko dugu elizara, Arrateko gain estura igoz. ◀) ENTZUN: 8. Sanmartintxiki eta basajaunen kondaira.

12. **San Gregorioko eliza.** Ingurune hau aztertu ondoren berriro atzera egingo dugu errepidera ateratzeko.

13. **PR.** Errepidea gurutzatu eta bidea jarraituko dugu eskuinera eta gora eginez.

14. **Egur-hesia.** Egur-hesia igaroz ezkerreko bidexka hartuko dugu ur-deposituen parean, PR arrastoei kasu eginez.

15. **Geldiunea.** Parean dugun baserria Sabiaga da, eta ezkerrean gelditzen da Arratiñ. Geldiunea egin ondoren bideari aurrera ekingo diogu. ◀) ENTZUN: 9. Arratiñeko Jabier.

16. **Gaztiñerre.** Ur-biltegia dagoen honetan PR-5a GR-20 ibilbidearekin elkartzen da. Ur-biltegia eskuinean utziz GR-20aren arrastoak jarraituko ditugu iparralderantz. Haranaren beste aldera zuhaitz arteak begiratzu Artzate baserria ikusten da. ◀) ENTZUN: 10. Gaztiñerre.

17. **Errepidea.** Artaditik ateratzean errepidea hartuko dugu ezkerretara, behearantz jarraituz.

18. **Kablea.** GR arrastoak jarraituz eskuinera egingo dugu zubia igaroz eta etxe artean sartuz. Eskuinean geldituko da iturria. Zubia igaro aurretik ezkerrean den etxe atarian berriz, kablea.

19. **Errepidea.** Errepide parean eskuinera jarraituko dugu. Parean Rafaelene taberna dago.

=3. **Astigarragako zubia.** Errepidea gurutzatu, eta Astigarragako zubitik hasiera puntura itzuliko gara bide beretik.

=1. **Amaiera-puntua.** San Martingo plazan, hasitako leku berean emango diogu amaiera ibilbideari.

GUNE INTERESGARRIAK

1. SAN MARTINGO PLAZA

Toursko San Martingo eliza bere erretaula eta organo ikusgarriarekin, eta udaletxea ere bertan kokatzen dira. Udaletxeko sarreran Aitor Mendizabal eskulturagileak Joxemiel Barandiaranen omenez eginiko irudi multzoa dago ikusgai. Zaindegi etxea ere gertu dago, errepidean aurrera jarraituz metro gutxira.

2. OLALUZEAGAKO KAROBI-ZULOA

Ataunen ondoen kontserbatu den karobi-zuloa. Bost mendetan zehar herrian landu den langintza guztiontzako erakusgai egoteko berreskuratua. Bertan azaltzen da beronen labe-funtzionamendua panel bidez.

3. LARRUNTZA-JOXEMIEL BARANDIARAN MITOLOGIA MUSEOA

Joxemiel Barandiaran Mitologia museoa ataurdar honen lana eta bizia, eta berak bildutako mitologiaren inguruko informazioa lantzen da modu erakargarrian.

4. SAN GREGORIOKO ELIZA

San Gregorio Magnoren eliza, eta inguruan Ataria: Euskal estetikazko antropologiaren mitopoesiazko lekua. Bederatzi burdinazko estelez, eskultura batez eta pintura-ikur batez osatua.

